

salto

antzeziana
metrokoadroka eta jb pedradas



(...)

*Hildakoei azazkalak eta ilea luzatzen zaizkie.
Hori entzun dut beti.
Hildakoei azazkalak eta ilea luzatzen zaizkie.
Haiei.
Haiek ez diren gorpuei.
Eta orduan ni, zer ezberdintzen nau haietatik.
Ni hemen nago.
Azazkalak eta ilea luzatzen zaizkit.
Nago.
Nago.
Nago.
Zer ezberdintzen nau azazkalak eta ilea luzatzen zaizkion gorpu batetik?*

*Hildakoei azazkalak eta ilea luzatzen zaizkie.
Hori uste nuen nik.
Baina ez da egia.
Hildakoei ez zaizkie azazkalak eta ilea luzatzen.
Mito bat da.
Gezur kolektiboa.
Hildakoak deshidratatu egiten dira, azala mehetu,
beren baitara bildu.
Horregatik iruditzen zaigu luzatzen zaiela ilea,
luzatzen zaizkiela azazkalak, azala hondoratzen zaielako.
Eta orduan, zer ezberdintzen nau haietatik?
Zer ezberdintzen nau hildakoetatik,
azazkalak luzatu ala ez,
ilea luzatu ala ez?*

Ihesi zebiltzan Butch Cassidy and the Sundance kid.

*Salto egiteak. Salto egiteak ezberdintzen nau hildakoetatik.
azazkalak luzatu ala ez,
ilea luzatu ala ez.
Salto egiteak. Salto egiteak ezberdintzen nau.
Salto egiteak soilik.*

(...)

SALTO Metrokoadroka kolektiboak eta J.B. Pedradas-ek elkarlanean sortu duten antzezlan da.

SALTO antzerki bakarrizketa poetiko bat da.

SALTO Oier Guillanek idatzitako testu batetik abiatzen da, Javier Barandiaranek antzeztua, dramaturgia bien arteko elkarrizketa artistikotik sortua.

SALTO sortze prozesuan parte hartu dute Pako Revueltasek (zuzendaritza artistikoa) eta Idoia Beratarbidek (atreztoa, jantziak).

SALTO kode eszeniko ezberdinen artean mugitzen da, kodeen mugak arakaturik, deseginez, eta berreraikiz: pertsonaiatik pertsonaiara, pertsonaiatik aktoreira, aktoretik testura, testutik publikoaren zentzumenetara.

SALTO bizitzako saltoei buruzko antzezlan bat da, oholtzara ateratzea bera ere salto egitea delako.

SINOPSISIA

Pertsonaia bat gela itxi baten barruan sei maniki-bururekin hizketan, obsesio bakarrarekin: “*Salto egiteak ezberdintzen nau hildakoetatik*”. Pertsonaiaren azpian aktorea sumatuko dugu tarteka, pertsonaiatik sartu-atera ibiltzen dena, publikoa zuzenean itauntzen duena.

Umore absurdua, kode eszenikoen arteko jolasa, hunkigarritasun arraro bat. Publikoari bere salto propioa topatzeko gonbitea.

TESTUARI BURUZ

Testuak **elementu poetikoak** txertatzen ditu forma aldetik (errepikapena, irudiak, erritmoa...); bi modutara irakurri liteke: modu jarraian, edo zatikatuan. Definitu gabeko pertsonaia baten sentimendu bat, barne bakarrizketa hautsia islatzen dute. **Salto egitearekin duen obsesioa. Hilda ez egotearekin duen obsesioa.**

Tartean gurutzatuko zaizkio bestelako gaiak: azazkalak eta ilea, bakardadea, hegan egitea askatasunarekin lotzen duen ideiarene iraultzea, paraxutistak...

Salto egitearen inguruko obsesio horren isla da pertsonaiak behin eta berriz gogora ekartzen duen filma: *Butch Cassidy and The Sundance Kid* (1968, zuzendaria George Roy Hill) filmeko protagonistek amildegi batetik salto egitea erabaki behar dute momentu batean. Paul Newman eta Robert Redfordek interpretatutako pertsonaien arteko elkarrizketa horrek laburbiltzen du, modu komiko eta ia absurduan, saltoaren ideia. SALTOko pertsonaiak behin eta berriz oroituko du salto hura, bere salto propioaren bila.

SORMEN PROZESUA

Oier Guillan eta Javi Barandiaranen intuizio bital batetik abiatzen da SALTOren ideia. Nork ez du sentitu inoiz bere bizitzan SATO bat emateko tentazioa edo beharra?

Idea horietatik abiatuta testuaren lehen zirriborro bat egin du Oierrek, ostera Javirekin batera entsegu lokalean osatua. Elkarrekin abiatu dute antzezlanaren lehen bertsioa, ZIZT! ekimenaren barruan sortze prozesuaren parte erakutsi delarik. Ondorengo fase batean, **Pako Revueltasekin** elkarlanean eman zaio forma definitiboa lanari. **Idoia Beratarbidek** (MARODI sorkuntzak) sortu du estetika.

LEHEN URRATSAK

2014ko maiatzaren 25ean publiko aurreko froga bat egin da formatu txikian sortze prozesuan egonik, **Mikelazulo kultur elkarte**an ZIZT! ekimenaren barruan.

2014ko urriaren 12an aurrestreinaldia **Pasaiako umorezko antzerki** jaialdian.

2014ko urriaren 23an estreinatuko da **Bilboko La Merced** aretoan **BAD jaialdiaren barruan**.

2014ko urriaren 25 eta 26an estreinaldia **Donostiako Lugaritz** kultur etxean.

FITXA ARTISTIKOA

Aktore: Javi Barandiaran.

Testua: Oier Guillan.

Zuzendaritza artistikoa: Pako Revueltas.

Arropa eta atrezzoak: Idoia Beratarbide (MARODI sorkuntzak).

Ekoizpena: Metrokoadroka & J.B.Pedradas.

Laguntzaileak: Eztena jaialdia, Mikelazulo kultur elkarte, Errenteriako Udala, Errenteria Hiria Kulturgunea, Pasaiako Udala.

Eskerrik asko: BAD jaialdia, Lugaritz kultur etxea.

Harremanetarako:

metrokoadroka

679977276

j.b.pedradas

666330419

metrokoadroka@yahoo.com

www.metrokoadroka.org

<http://www.facebook.com/metrokoadroka.laborategia>

PARTE HARTZAILEEI BURUZ

Javier Barandiaran (Donostia, 1969) Donostiako TAEen ikasi ondoren Ados Teatroarekin hasi zen lanean eta ondoren Trapu Zaharra-rekin, gaur egun hauekin jarraitzen du antzezlan ezberdinetan parte hartuz. Aldi berean, bere sormen kaotikoa libre utzi eta **J.B. Pedradas** (bere *alter ego*) zigilupean dihardu, neurri txikiko hainbat ikuskizun sortuz. Hala nola, *Errare Hymnvm Est*, *Pepinos Podridos (en el frigo)* eta *No Estoy Para Nadie*, guztiak karteleran oraindik. Hika taldearen *Hitzak* lanean parte hartu du berriki.

Metrokoadroka-ko kide gisa *Poza* antzezlanean aktore, *Zertarako hegoak* eta *Gabrielen lekua*-n zuzendari artistikoa izan da.

Oier Guillan (Donostia, 1975), idazle eta kazetaria. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia eta antzerkiaren arloan, azkenak *Eskuen sustraiak* (Susa, 2009), *Herio heroi/Arra.Arraroa* (Artezblai, 2010), *Hura ez da lekua* (Txalaparta, 2012) eta *Elkartasun basatia* (Susa, 2013) izan dira.

Poesia beste arte diziplinekin uztartzen egin du lan hamaika ezena lanetan, azkenak *Gabrielen lekua* (Gabriel Aresti kultur elkarte), *Poza* (Metrokoadroka), *Zertarako hegoak* (Metrokoadroka) eta *Hura ez da lekua* (Metrokoadroka).

MARODI sorkuntzak: **Idoia Beratarbidek eta Maria de Bernardok** sortutako proiektua. Eszenarako jantzi eta atrezzoak egiten espezializatuak. Besteak beste antzezlan hauetan egin dute lan: *Hamlet* (Artedrama/PTP/Dejabu), *Publikoari gorroto* (Huts teatro), *Gabrielen lekua* (Gabriel Aresti kultur elkarte/Zenbat Gara), *Zertarako hegoak* (Berria/Metrokoadroka), *Poza* (Metrokoadroka).

METROKOADROKA KOLEKTIBOARI BURUZ

Metrokoadroka hainbat arte diziplinetan gabiltzan hamaika lagunek osatu dugun kolektiboa da. Artistentzako plataforma gisa eta sorkuntzarako elkargune gisa tresna eraginkor bat sortzea da gure asmoa.

Metrokoadrokaren helburua honakoa da: hala arte eszenikoetan nola arte plastikoetan sor daitezkeen proiektuak laguntzea, zabaltzea eta batzuetan sortzea. Beti ere kulturarekiko ikuspegi kritikoari eta esperimentazioari lehentasuna emanez. Arte diziplina ezberdinen arteko elkarriketa eta elkarlana da esperimentazio horren oinarri nagusietako bat.

Metrokoadroka harreman artistikoen sare antolatua da, eta horri esker gauzatzen ditu proiektuak. Sare horretan parte hartzen dugunok banakako edo taldeko proiektuak aurrera atera ahal izateko eskaintzen diegu besteei gure ahala.

Kultura beste modu batean ulertzeko, egiteko eta kudeatzeko beharra dagoela uste dugulako antolatu gara modu honetan. Proiektuak sakontasunez, seriotasunez eta ausardiaz sortzea da gure erronka, auzolanean eta harremanen sareetan oinarrituz gure lana.

ARGAZKIAK

